

noaue



**Igande honetan Dema plazan,
Hurbilagok antolatutako
azoka**

**Abenduan ekintza ugari
antolatuko dituzte Aginagan**

**Herri ordezkaritza zabala
Durangoko Azokan**



**GuraSOS: “Erraustegia gelditu.
Prebentzioz gelditu, osasuna
eta ingurumena bermatzeko”**

ARATZ

zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



• eguneko menua • karta • pintxoak • bokatak • plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

URDAIRA

Sagardotegia

ABENDUAK 17, LARUNBATA
20:00tan BARRIKOTEA!



Aginaga 943 37 26 91

Antxeta *Irekita gaude!*
TABERNA-JATETXEA



egunero irekitzen dugu!

• eguneko menua (astegunetan)
• jaiegunetan: asteburuko menua

• ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12



- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

Okindegia - Kafetegia



Astelehenetik larunbatera 06:00 - 21:00 / igande arratsaldetan itxita

Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95

Albisteak iruditan

Eskaera Zubietan lasterka aritzen direnei

Ez da NOAUA!-rekin hartuemanetan jarri izan den lehen aldia. Egoera aldatzen ez dela ikusita, berriz ere honako eskaera luzatu nahi die Zubietako bizilagun batek, bertako bide nagusian lasterka aritzen direnei: Arkaitzerreka paretik Lanbide Eskolaraino dagoen bide alternatiboa balia dezatela, edota bestela, txaleko islatzaileekin korrika egin dezatela, bereziki iluntze partean, ibilgailuren bat gidatzen doazeneztat ikusgarria izateko.

Etiket edonora joan edo bizilekura itzultzeko ezinbestekoa izaten dute ibilgailua hartzea Zubietako hainbat bizilagunek, baina iluntzean arriskutsua ere suertatu daitekeela dio hedabide hone-



Arkaitzerreka paretik Lanbide Eskolaraino dagoen bide alternatiboa balia dezatela, edota bestela, txaleko islatzaileekin korrika egin dezatela eskatzen dute hainbat zubietarrek, bereziki iluntze partean.

kin hartuemanetan jarri den herrikideak. Autobusak, autoak, oinezkoak, lasterka-

riak... elkarbizi diren bidea dugu Santueña-Zubietako artekoa.

Laburrean

Urteko azken NOAUA! aldizkariak

Eskuartean duzuenaz gain, beste bi aldizkari argitaratuko ditugu urtea amaitu aurretik; abenduaren 16an eta 23an. Aurtengo azken NOAUA! horrekin banatuko dugu 2023ko egutegia eta gabonetako gehigarria.

San Tomas Azoka, ate joka

Abenduaren 18an ospatuko dugun azokari begira, babarrun eta sagardo txapelketetarako produktuak NOAUA! Kultur Elkartera ekartzeko egunok finkatu ditugu; abenduaren 1a eta 2a, eta hilaren 12tik 14ra (8:00-13:00/16:30-18:30).

Peña Pagola elkarteko bazkide egiteko aukera

Kalezarko Peña Pagola elkarteko bazkide izateko aukera zabalik izango da abenduaren 15era arte. 18 urtetik gorako edozeinentzat irekita, Usurbilen bizi behar du. Informazio gehiagorako: 625 701 616 / 653 716 394.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti Bengoetxea

Berbak eta kantuak, katuen kontuak

Aurrekoan, ostiral ilun batez, Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandiarekin batera bidaia berezi bat egin genuen Arroa Behera bertaratu ginenok. Batzuetan kosta egiten da halako gozokiak dastatzeko erabakia hartzea. Baina, nire buruari eskerrak eman nizkion etxeratzean, nahiz eta, nahi baino gehiago aldrebestu zitzaigun gaua.

Ordu erdi pasatxoko bidaia genuen Arroa Behera heldu, autoa aparkatu eta eliza inbaditzeko. Eta heldu bezain pronto, presati norabidea aldatzen hasi eta espaloari danga gogor jo nion. Metro eskasera autoa aparkatzean, hantxe aditu genuen gurpilak bere onenak emanak zituela adierazi zigun soinu jostari, egonkor eta lasai bat. Baina tira, emanaldia hasteko hamar minutu eskas geratzen zirenez, aterkiak hartu eta lekua hartzera joan ginen bi aldiz pentsatu gabe.

Eliza atarian batu ginen hotzari izkina egin nahian, barruan itsasoa eta bikote oso berezi bat ezkututzen ziren bitartean. Ines, ohi bezain esatari, espazioa eta musika bere egiteko prest zegoena. Eta Sarrionandia, alboan, marinel baten gisako jertse marradun zuri urdinaz, lotsati eta zintzoki eseria.



"Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandiaren *Berbak eta kantuak, katuen kontuak* emanaldia ikustera hurbildu ginen Arroa Behera".

ALAZNE ARRUTI

"Basamortuaz eta Saharaz ere hitz egin zuten. Eta hara garraiatu ninduten osterara ere, duela ia hamar urte lur hura ezagutzeko aukera izan nuen garaira"

Emanaldiak, *Berbak eta kantuak, katuen kontuak* zuen izena. Eta antzeman daitekeen gisan, hainbat katu biltzen ditu bere baitan. Solasaldia hasi bezain pronto, elizako egurrezko banku zurruntan esertzerako ahaztua nuen autoa etorri zitzaidan burura. Izan ere, lehenengo kantuan, jolas bat proposatu ziguten. Kantuan jasotako katu guztiak identifikatzea. Bistakoak, zein ezkutuen zebiltzanak. Eta hantxe azaldu zen halako batean, autoak altxatzeaz nazkatua zegoen katu bat. Bere lanaz kexaka eta aurrerantzean egiteko prest ez

zegoen guztia aldarrikatzen zuena. Eta ni bitartean, urduritasunez jota dagoeneko, kanpoan utzi nuena umorez hartu nahian.

Bi sortzaile hauek, ezin hobeki uztartzen dituzte musika eta literatura. Sarrionandia Habanan idatzitako testuak, konplizeen bitartez Euskal Herrira eskuz esku heldu ostean, Gosariak izeneko proiektu batean musikatu zituen Inesek. Eta oraingo honetan, saio hauen bitartez, testu hauen jatorri eta zergatia azaltzen dute elkarrekin. Bakoitzari sarrera literario bat eginaz eta ostean, entzulearen gozamenerako, zuzeneko musika esperimental eta zirrara garriaz baliaturik.

Eta a zer nolako bidaia, aizue. Ironia eta umore asko. Salaketa eta mina borborka, erraiak dantzan jartzeraino. Irudiak eta sentimenduak bata besteri lotuta eta dantzan. Eta neurririk gabeko burrunba eta

zoramena guztia inguratzen, elkarrekin oso ongi moldatzen diren bi lemazain finen gidaritzapean.

Basamortuaz eta Saharaz ere hitz egin zuten. Eta hara garraiatu ninduten osterara ere, duela ia hamar urte lur hura ezagutzeko aukera izan nuen garaira. Eliza hartako aulkiak baino atseginago, alfonbrez estalitako lurtean eserita, te kikara bat eskaintzen zidaten une zehatzera. Orduan azaldu baitzidaten, tearen esaera. Lehena, bizitza bezain garritza dela. Bigarrenago, maitasuna bezain gozoa. Eta azkena, heriotza bezain suabea. Izan ere, belar berdinarekin, hiru erronda prestatzen dituzte, bakoitzari ur eta azukre gehiago botaez. Eta halako sinpletasunaz deskribatzen dute bizitzaren nolokotasuna.

Hizlariak, itsasoa ere izan zuten hizpide, atzealdean, argiz ziprirtindutako ur masa bat zuten bitartean. Inesek aldarrikatzen zuen, itsasoa dela bide bakarra. Eta Sarrionandia aldiz, zalantzan jartzen zuen, txaluparen garrantzia azpimarratuz. Saioa amaitzeaz zela ohartu nintzen, elizaren sabaetik zintzilik itsasontzi bat zegoela kulunkan, alde bateatik bestera, norabiderik gabe biraka. Nire gisan, ia gaueko 12ak jotzeaz, etxera bidea topatu beharrean.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



Ekoizle eta sortzaileen lanekin osatu nahi dute '650 Usurbil Bizi' otarra

650 Usurbil Bizi otarrean parte hartzeko deia luzatu dute Usurbilgo ekoizle eta sortzaileentzat: euren produktuak otarretan banatzea nahi dutenek izena eman beharko dute azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitartean, Gertuago.eus atarian formulario bat beteta. Herriko era guztietako ekoizleen produktuekin osatuko dituzte 650 Usurbil Bizi otarrak: lehen sektorekoak, kultur sortzaileak, moda diseinatzaileak... Eta erosketak herrian bertan egingen dituzten bezeroen artean zozkatuko dira. Abenduaren 31n jakinaraziko dira irabazleak, San Silvestre lasterketaren ostean.

650 Usurbil Bizi proiektutik sortu dute, besteak beste, 650 Usurbil Bizi otarra, Kulturgunearen eta Hurbilagoren elkarlanaren ondorioz. Proiektuaren balioak biltzen dituen otarra sortzea dute helburu. Horrela, herriko ekoizleen lana eta eskaintza ikusarazi eta balioa eman nahi diote, herrian bertan kontsumitzea bultzatzearekin batera.

Abenduaren 5etik 30era bitartean herrian egindako 10 euroko erosketa bakoitzeko, txartel bana jasoko dute erosleek, eta horien artean egingo dute otarren zozketa. Abenduaren 30ean saltoki bakoitzak zozke-



Abenduaren 5etik 30era bitartean herrian egindako 10 euroko erosketa bakoitzeko, txartel bana jasoko dute erosleek, eta horien artean egingo dute otarren zozketa.

OTARRERAKO OSAGIAIK

Proposamenak egiteko epea abenduaren 2an amaituko da

ta egingo du bere bezeroen artean, eta irabazleekin kontaktuan jarriko dira, hurrengo egunean egingo den sari banaketara gonbidatzeko.

Baldintzak

Honakoak dira otarrean beren produktuekin parte hartu nahi duten ekoizle eta sortzaileek bete beharreko baldintzak:

A) Kultura eta sormen industriako jarduerak:

1. Usurbilen erroldatutako herritarra edo elkartea izatea

eskaerak egiteko epea zabalduko lehen egunean (2022ko azaroaren 28an).

2. Merkaturatutako produktua- ren egilea edo autorea izatea. Taldean egindako lanak badira, taldekideen %33ak gutxienez Usurbilen erroldatua egon behar du.

3. Azken 5 urteetan merkaturatutako produktua izatea (2017ko abenduaren 2tik aurrera).

4. Kultura eta sormenaren industriako ondorengo jardueradarren bateko eragilea izatea: musika, literatura, arte eszenikoak, ikusmen-arteak, bestelako kultur diziplinetako eragileak, moda diseinatzaileak eta sormen industriako bestelako eragileak.

b) Lehen sektorea, ostalaritza eta elikaduraren industriako ekoizleak:

1. Lehen sektorea: nekazaritza edota abeltzaintza sektoreko jarduerarekin, ekoizpen-ustategia Usurbilen kokatua egotea izango da ekoizleak bete beharreko baldintza.

2. Elikadura-industriako ekoizleak: Usurbilgo lursailetan kokatutako nekazaritza edota abeltzaintzako ekoizpen propioa duten sagardogileak eta elikadura-industriako bestelako ekoizleak.

3. Elikadura-produktuak eskaintzen dituzten ekoizleek, jakien osasun erregistroan inskribatuta egon beharko dute edo osasun-baimena izan, hala dagokien kasuan.

Azoka eta San Silbestre lasterketa, begi-bistan

Gabonekin batera, bueltan datoz Hurbilago elkartearen argizatutako egurrezko etxetxoak. Horrekin batera ekimenok iragarri dituzte:

Abenduak 4, igandea

■ 11:00-14:00 Hurbilagoren Azoka Dema plazan.

■ Partehartzaileak: Lizardi, Marije, Otari Goxo, Ione Iruetagoiena, Kool Studio, Ama eta biok, Kaori Hamarratz, Urluma, Gigil, Mikka Pika, Tilin Talan, SendaGaia, Amlu, Hyle Zizka Mizka, Jose Ramon, Errasti Ogia, Suma Flowers, Puochinah, Koloreztatu Berexi

Art, La Marieta Tea, Amesgile, Krysia.

■ 11:00-14:00 Umeentzat tailerrak.

■ 12:00 Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa.

■ Zizkamizka eta Berexi Artekin sorkuntza tailer irekien txanda.

Abenduak 31, larunbata

■ 17:00 Hurbilago San Silbestre herri lasterketa frontoitik. Izen-ematea aurrez gertuago.eus atarian edo egunean bertan.

Antolatzailea: Hurbilago elkartea.

Santuenea, hitza hartzeko bidean

Santueneko bizilagunek galdera honi erantzuteko aukera izango dute abenduaren 17an: “Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar bada ere?”.

Azken urte eta erdian etorkizuneko auzoa eraikitzen ari diren Udalak eta Hiritik At kooperatibak sustatu duten parte hartze prozesuaren bidez. Hainbat eskuhartze adostu dituzte osatu duten Auzo Planean. Bazen ordea, eztabaida eragin duen eremu bat; eskubaloi kantxarena. Batzuentzat “auzoaren ondare ukiezina”, besteentzat, “Auzo Planak aukera berriak ireki dizkio auzoari” baina “aukera horien garapena ez da bateragarria eskubaloi kantxaren neurriekin eta zentralitatearekin” eta eremua neurritz txikitzearen alde agertu dira.

Galdera definitzeko prozesua

Desadostasunok ikusita, hila-beteotan auzo galdeketa bat egitea planteatu eta noiz, nola egin, eta batez ere, galdera definitzeko lanketa saioak egin dituzte Santuenean. Besteak beste, Udalari ere ekimena proposatu eta urriko udalbatzarrean prozedura administratiboa onartu zuten. Iragan asteko osoko bilkuran aldiz, bozketa egunerako mahaikideak izendatu zituzten. Mahaiburua eta lehen bokala udal langileak izango dira, bigarrena aukeratzeko aldiz Santueneko bizilagunei parte hartzeko gonbita egin zitzaizen. Bi



Auzotarrak bozkatzera animatzeko talde argazkia atera zuen bizilagun talde batek.

KANTXA BERE HORRETAN UTZI ALA TXIKIAGOTU “Abenduaren 17an santuenearek erabakitakoa loteslea izango da”

lagun aurkeztu dira deialdira eta haien artean zozketa egin zuten azaroaren 24ko udalbatzarrean, titularra eta ordezkaria hautatzeko. Iragan larunbatean bestalde, auzotarrak bozkatzera animatzeko talde argazkia atera zuen bizilagun talde batek.

Eremua, bermatua

Santuenearek hitza hartzeko bidean prestaketa lan betearen dira. Iragan azaroaren 23an erakusketa zabaldu zuten auzoko jubilatuen elkartearen. Galdeketa testuingurua azaltzen du; planteamendua nondik datorren eta baiezkotze ezezkoa bozkatzeko egon daitezkeen argudioak ere biltzen ditu. Bes-

teak beste, eskubaloi kantxaren historia jasotzen du, baita auzotarrek hala erabakitzen badute, kantxaren neurriak txikiagotuta zer nolako eskuhartzeak egin daitezkeen.

Modu batean edo bestean, abenduaren 17an santuenearek erabakitakoa loteslea izango da. Haien hitza beteko dela bermatu dute eta emaitza edozein izanda ere kantxa ez dela desagertuko. Bozken gehiengoak plaza bere horretan utzi edo neurritz txikiagotzearen artean hautatu ahalko dute.

Datozen deialdiak

Abenduaren 15era arte

■ Erakusketaren Santuenea 11, Zahar Etxea, atzeko aretoa.

Abenduak 1-15

■ Kanpaina.

Abenduak 8, osteguna

■ 09:30 “Gure bazterrak eza-gutzen”, ibilaldia Santueneko

frontoian.

■ 12:30ak aldera, hamaiketakoa.

■ Izen-ematea: usurbilkultura.eus (abenduaren 5a arte).

Abenduak 13, asteartea

■ Aurretiaz bozkatzeko aukera, 9:00-14:00 artean udaletxe-ko idazkaritzan eta 16:00-20:00 artean Santuenea 12an. 16 urtetik gorako eta auzoan errol-datutakoek.

Abenduak 17, larunbata

■ 10:00-20:00 Auzo galdeketa Santuenea 12an: Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubaloi kantxaren neurriak txikitu behar badira?

-Bai

-Ez

-Zuri

■ Egunean zehar, gabonetako azoka txikia eta bazar solidarioa.

■ 18:30 Gabon kantak Dj Mendiren eskutik, zuhaitza piztea, Olentzeroren postontzia...

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

patxi
patxi
lategia

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Urriaren 31ko oroimen egunari lotutako mozioa

Urriaren 31n 'Estatu-kolpe militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren biktimak guztiak oroitzeko eta omentzeko eguna' izendatzea proposatzen zuen mozioa aurkeztu zuen PSE-k azaroaren 24ko osoko bilkuran. Eta aurrerantzean egun horretan, "bidezkotzat jotzen diren eta urriaren 31rako egokiak diren hedapen-ekitaldi, -jarduerak edo -ekintza guztiak prestatzea". EHBilduk eta EAJ-k aurka bozkatu zuten eta testua ez zuten onartu.

Madrilen Memoria Demokratikoaren Legearen alde bozkatu arren, EHBilduk hainbat punturekiko desadostasuna agertu zuela gogorarazi zuten udal gobernu taldetik, besteak beste, urriaren 31 oroimen eguna izendatzearekiko, aipatu legeak aitortzen duen moduan, egun horretan baina 1978. urtean onartu baitzuten Espainiako Konstituzioa. "Konstituzio horrek Francoren oinordeko den Erregea ezartzen du, depuraziorik gabeko ejertzito frankistari "batasun nazionalaren" defentsaren eskumena eskaintzen dio eta herri gisa ditugun eskubideak ukatzen ditu". Horregatik EHBildutik ziotenez, "frankismoaren biktimei errekonozimendua egin nahi diegu bai, baina, ez egun horretan". Usurbilen irailaren 18a proposatua zuten "faxistak gure herrira sartu zireneko eguna", Usurbil 1936 elkartearen oroimen historikoa berreskuratzeko egiten ari den lanke-taren testuinguruan. Besteak



Urriaren 31n 'Estatu-kolpe militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren biktimak guztiak oroitzeko eta omentzeko eguna' izendatzea proposatu du PSE-EEK. EAJ eta EHBildu ordea, aurka agertu dira.

PSE-REN PROPOSAMENA

**EHBildutik ziotenez,
"frankismoaren biktimei
errekonozimendua
egin nahi diegu bai,
baina, ez egun horretan".**

**Usurbilen
irailaren 18a
proposatua zuten
"faxistak gure herrira
sartu zireneko eguna"**

beste, memoria lekuak sortzeko ahaleginaren baitan, irailaren 18an Irubiden egin zuten ekitaldian hiru udal taldeek adostutako adierazpena plazaratu zuten. EHBilduren esanetan, PSE-ren mozioak "batasun hori hausten du" eta "ez da egun batasun eta adostasun batera iristeko aukerarik". PSE-tik Patxi Suarezek bere arrazoiak azalduak dituela adierazita,

orain arte bezala, oroimen historikoa berreskuratzeko ekimenekin bat egiten segiko duela iragarri zuen.

Zapategiren garapenerako urrats berria

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspeneren Testu Bategineko Zapategi eremuaren aldaketa puntualari behin behingo onespenera ematea erabaki zuten aho batez azaroaren 24ko osoko bilkuran. Espedientea EAE-ko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorriko dute. Foru Aldundiak eman beharko dio behin betiko onespenera. Michelin ondoko eremu honetan kokatuko dira Gureak eta Covid-19ak eragindako krisialdiaren baitan Elkarrek proiektua utzi ostean, horren ordeztasmoan sartu den Balfer inbertsoreak erakartzearen jarduerak.

Joxe Martin Sagardia plazari izena eta plaka kendu nahi diote

Espainiako Gobernuak EAE-n duen ordezkari Denis Itxasok udaletxe aurreko plazak azken 40 urteotan izan duen izena eta plaka kentzeko hilabeteko epea eman dio Usurbilgo Udalari, "Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko legea (29/2011) urratzen delakoan". Jasotako eskaera salatu du udal gobernu taldeak. "Bizikidetzaren aurkako neurria da, estatu indarkeria ezabatzeak nahia atzean ezkutatzen duena. Euskal Herrian, tamalez, indarkeria asko egon dira, eta guztiek eragindako biktimak aitortu behar dira".

Udala une honetan adituak diren kontratatutako abokatuak azterketa juridikoa egiten ari dela berri eman du helburu argi batekin, "40 urtez egon den izendapen horren defentsa egiteko". Aipatu moduan, 1982an izendatu baitzuten udaletxe aurreko plaza, Joxe Martin Sagardia plaza gisa. Orduko udalbatzak erabaki zuen izendapena.

Aurreko legealdian, Gogora Institutuak biktimak gisa aitortu zuen Sagardia. Horregatik udal gobernu taldearen esanetan, Espainiako Gobernuaren ordezkariak eginko eskaera "bizikidetzaren aurkako eskaera bat ez ezik, herritarren gehiengoaren borondatearen eta udalen autonomiaren aurkako neurria da".

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Tunelaren proiektuari alegazioak aurkezteko epea luzatu egin da

Usurbil eta Orio arteko trenbidean tunel bat eraikitzeko proiektuari alegazioak egiteko epea abenduaren 28ra arte luzatu da. Jaurilaritzako Garraio Azpiegituren zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren azterlanaren zenbait anexo edo eranskin “akats batengatik” jendaurrean ez zituela jarri onartu du eta informazio publikoaren epea luzatzeko agindu.

Herri ekimenak aditzera eman duenez, “aipagarria da falta ziren eranskin horien artean, joan den urtean zenbait erakunde egindako txostenak zeudela, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa Animalien eta Landareen zerbitzuak 2021. urteko abenduan egindako txostena, non erakunde honek Garraio sailburuordetzari kritika gogorra egiten dion proiektuak Oriako Itsasadarreko Babes Bereziko eremuan eragiten dituen kalteengatik azaldutako eragozpen nagusiak ez direlako aintzat hartu”.

Eusko Jaurilaritzak jendaurrean jarritako dokumentazioan



Zenbait anexo edo eranskin “akats batengatik” jendaurrean ez zirela jarri onartu eta informazio publikoaren epea luzatzeko agindu dute.

“Usurbil eta Orio arteko trenbidean tunel bat eraikitzeko proiektua alegazio epean da”

ingurumen-inpaktuaren azterlanari dagozkion 9 eranskin falta zirela ikusita, herritar batek salaketa bat aurkeztu zuen. Garraio sailburuordetzak arrazoiak eman dio, esanez “giza akats batengatik” ez zutela webguneko estekan dokumentazio guztia jarri. Horrenbestez, dokumentazioa osatu eta azaroaren 22an amaitzekoa zen alegazioak egiteko epea abenduaren 28ra arte luzatu behar

izan dute.

Alegazioak bideratzeko modua

Usurbilgo Urdaiaagako Txokoalde auzo kaltetuko hainbat bizilagunek, Eguzki eta Usurbilgo Aranerrek talde ekologistek, Haritzalde eta Mutriku Natur Taldea ingurumenaren defentsako elkarteek, Satorralaia bizilagunen mugimenduak, eta Donostialdeko hamarnaka herritarrek proiektua bertan behera uztea eskatu dute eta hainbat alegazio izenpetu dituzte. Alegazioak bideratzeko dokumentua esteka honetan dago eskuragarri: <https://alegazioakaginaga.wordpress.com/>

Mankomunitatea baliabide faltan

Iragan astean egin zuten osoko bilkuran gai-zerrendan iragarria ez zegoen presazko gai bat ere bozkatu zuten; Berri Buruntza mankomunitate sortu berriari lotutakoa. Azaroa hasieratik idazkari eta kontuhartzailea lanean dabil-tza, baina “beste langilerik ez

du”. Presazkoa da lan taldea osatzea, nahikoa baliabide ez baititu egun mankomunitateak udal gobernu taldetik ohartarazi zuten moduan, tokiko enplegu programen garapenerako. Eta egitasmo hauei lotuta jasotako dirulaguntzak ez galtzeko ezinbestekoa

dute baliabidez hornitzea. Esaterako, brigadarako berriki egin den kontratazio deialdiak gauzatua egon behar du urte amaierarako. Langileak kontratatzeke proposamena egitekoa da egunotan udal gobernu taldea mankomunitateko buruei.

Txokoargi zabalik

Txokoaldiko auzotarren elkarteak antolatutako ekin-tzok asteotan:

Abenduak 2/16, ostirala

■ 17:30-19:30 Belar uken-duak, hortzetako pasta, enplastoak, alkoholak... egiteko ikastaroa Leire Lazkanorekin.

■ Izen ematea: 619 591 849 (16:00-18:00). Gehienez 12 lagunentzako lekua.

■ Prezioa: 20 euro.

Abenduak 9, ostirala

18:30 Luze edo Motz Idoia Torregararen eta Mirari Martiarenaren emanaldia.

Sarrera: 5 eurotan alde zurreretik Lizardin edo egunean bertan Txokoargin.

Andatzako indusketei buruzko aurkezpena

Abenduaren lehen arratsaldeko 18:00etan hasita Sutein, Andatzan (Irigainen, Txangostan eta Andatz III deituriko eremuetan) azken bi urteotan, uda partean egin diren indusketa lanen berri emango dute Aranzadi zientzia elkarteak eta zereginotan parte hartu duten herritarrek.

“Europa sutan?”

hitzaldia

Abenduaren 13an, iluntzeko 19:00etan Potxoenan, Adrian Zelaiaren eskutik. “Europa sutan? Egoera sozio-ekonomikoaren erronkak” izenburua duen hitzaldia.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

www.noaia.eus

USURBILGO ATARIA

San Tomas lehiaketan parte hartzeko **deialdia**

Noaua!k baseritar guztiak
gonbidatu nahi ditu

Herritarrek sagardo eta
babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute.
Parte hartzeko azken eguna abenduak 14.



Abenduaren **18an**
sari banaketa

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri
behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal
izango dute.

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko
ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko
zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena
emateko datak:

ABENDUAK 1, 2 eta 12,13 eta 14
azken eguna 14a

- **ORDUTEGIA:** 8:00-13:00 eta 16:30-18:30

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak
izango dira:

- 1. saria: 150€ + txapela
- 2. saria: 90€ + kopa
- 3. saria: 50€

Informazioa: Noaua!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



noaua

Indarkeria matxistaren aurrean, antolakuntza feminista aldarrikatu dute

Aurten, “egunerokoan jasaten ditugun beldur eta tentsio egoerak azpimarratu nahi ditugu. Sistematikoki jasaten dugun errealitateak, gure egunerokotasuna segurtasunez gauzatzea oztokatzen digu eta hori isilpeko biolentzia da”, salatu zuen Kafe Tertuliak Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzean. Gainera, “beldur hortaz baliatzen da sistema cisheteropatriarkatua, indarkeria modu eraginkorrean biktimengan egunerokoan mantentzeko. Hori gutxi ez balitz, indarkeria honen erantzule eta arduradun emakumeak egiten gaituzte”.



Espazio publikoetako sexu-indarkeriari aurre hartu eta erantzuteko, “lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra” bultzatzeko konpromisoa hartu du Usurbilgo Udalak. Argazkian, Kafe Tertuliak antolatutako elkarretaratzea.

Kafe Tertuliatik Usurbilen badauden puntu beltzak identifikatzeko lanketa bideratu dute azken asteotan. “Gaurkoan, txoko esanguratsuenak puntu beltzez salatu ditugu”, ez beldurra sendotzeko, “beldurra indarkeria sistematiko hau gainditzeko tresna gisa bideratu dugu proiektua, Usurbilgo emakumeen ahalduntzea bultzatuz”.

Indarkeria matxistaren aurrean antolakuntza feminista aldarrikatu zuten. Horretarako ordean ezinbestekotzat jo zuten herriaren partehartzea, “beldurra gure kaleetatik kanporatzeko! Kaleak ere gureak direlako!”.

Sarek bat egin zuen

Kafe Tertuliak deitutako mobilizazioa azaroko azken ostiralean egokitu da aurtengoa.

KAFE TERTULIA

“Beldurraz baliatzen da sistema cisheteropatriarkatua, indarkeria modu eraginkorrean biktimengan egunerokoan mantentzeko. Hori gutxi ez balitz, indarkeria honen erantzule eta arduradun emakumeak egiten gaituzte”

Sarek hilero antolatu ohi duen elkarretaratzearen egun berean. Sarek bat egin zuen Kafe Tertuliak eginiko deialdiarekin. Ordubete beranduago gune berean egindako kontzentrazioan “gaur, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean, Euskal Herriko leku askotan mugimendu feministarekin batera mobilizatu gara, eta adierazi dugu espe-

txearen eta espetxe-sistemaren izaera patriarkalak zigor bikoitza ezartzen diela emakume presoek, emakume izateagatik eta preso egoteagatik”.

Beste zazpi preso Euskal Herriko espetxeetara iritsiko direla berri eman zuen, “horrek dispersioaren eta urruntzearen behin betiko amaierara hurbiltzen” gaituela. Baina “oraindik lan handia dugu egiteko”. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dute, “konpromisoa, mobilizazioa kalean eta lana”.

Udal adierazpena

Espazio publikoetako sexu-indarkeriari aurre hartu eta erantzuteko “lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra” bultzatzeko konpromisoa hartu du Usurbilgo Udalak, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egu-

naren harira iragan asteko udalbatzarrean aho batez onartu zuten mozioaren bidez. Beste lau konpromiso ere hartu ditu Udalak. Batetik, “era sakonean ezagutzea emakumei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko”. Baita jarrera eta portaeretan aldaketak sustatzea ere, “emakumeek eta neskatoek indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan”. Inbertsioak ere bai, edota Berdinsarean tokiko jardunbide sare gisa indartzea eta beste administrazio eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

Usurbilgo talde bat, Beldur Barik lehiaketan

EAEko erakundeek indarkeria sexista prebenitzeko lankidetzan bideratzen duten gazteei zuzendutako programaren baitan, urtero antolatzen duten

ikus-entzunezkoen lehiaketan parte hartzen ari da 12-14 urteko kategorian Usurbilgo gaztetxo talde bat. Abenduaren 2an Sestaon egingo duten

topaketan jakinaraziko dituzte sarituak. Ekimenaren helburua honakoa da; “ikus-entzunezko produkzioen bidez erakustea neska eta mutilek

nola erantzuten duten desberdintasun egoeren aurrean eta nola egiten dioten aurre indarkeria sexistaren adierazpenei Beldur Barik jarrerarekin”.

Eguzkiren agurra Manu Aranbururi: “Egun handira arte, kamarada”

Manu Aranburu azaroaren 24an hil zen 69 urterekin. Herri-gintzari oso lotua, zinegotzi izan zen bere garaian baina batez ere mugimendu komunistan eta ekologistan aritu zen buru-belarri lanean. Bere heriotzak erreakzio ugari eragin zituen.

Eguzki Euskal Herriko talde ekologista eta antinuklearrak ondoko adierazpenarekin omendu eta agurtu nahi izan zuen zendu berri den Manu Aranburu herrikidea:

“Manu Aranburu usurbildarra hil da. Euskal Herriko mugimendu antinuklear eta ekologistako historiko edo, hobeto esan, klasiko bat izan da Manu. Egia da herrigintzako ia alor guztietan aritu dela, sindikatugintzatik memoriarraino, baina hori bezain egia da eguzki irribarretsua irudia inoiz ez duela falta izan bularrean, txapelan edota manifa batean astindutako banderan.

Komite Antinuklearretan ezagutu genuen eta, ondoren, Eguzkin.

1986an, Txernobilgo hondamendia gertatu berria zela, hara joan zen, behatzaile, nazioarteko misio herritar baten partaide. Handik ekarri zuen lehen eskuko informazioa ederki baliatu genuen Euskal Herrian. Kontuan izan garai hartan Lemoizko zentrala luza-



Eguzki talde ekologistaren esanetan, “Euskal Herriko mugimendu antinuklear eta ekologistako historiko edo, hobeto esan, klasiko bat izan da Manu”.

EGUZKI TALDEA

“1986an, Txernobilgo hondamendia gertatu berria zela, hara joan zen, behatzaile, nazioarteko misio herritar baten partaide. Handik ekarritako informazioa ederki baliatu genuen Euskal Herrian”

mendu edo moratorium zegoela, baina Garoñakoa jo eta ke ari zela. Txernobildik kanpai bat ekartzen ere saiatu zen, Urgullen ipintzeko eta urtero, hondamendiaren urteurrenean, jotzeko. Ezin izan zuen, orde. Trukean, erradiazioen ondorioei buruzko oso erakusketak argigarriak ekarri zuen, herri eta auzoetan ondo baino hobeto mugitu genuena.

Manu kezkatuta egon da pla-

neta mehatxatzen duten gaitz handiekin, bai, baina etxe ondoko arazoak begi-bistatik inoiz galdu gabe. Alde horretatik, esango genuke Oria ibaia izan dela bere begiko ninia (nahiz eta, egia esan, haren interesen zabala ikusita, beharbada gehiegi esatea ere badela aitortzen dugun). Manu gogoratzen dugu saneamendu-gabeziei buruz Lasarte-Oriako orduko alkatearekin eztabaida publikoan; edota, denboran hain atzera egin gabe ere, Oria ertzean Uraren baimenik gabe 18 pisuko dorre bat eraiki izana agerian uzten; edota Michelinen urtegiak Abalotz errekarira zurrupatzen diola salatzen. Manu gogoratzen dugu Inge-mar, Ucin, Luzuriaga eta, jakina, erraustegiaren kutsadurarekin kezkatuta. Izan ere, bidali zigun azkenaurreko mezuan

penatuta agertzen zen, orain dela egun batzuk Arkaitzerrekara antolatutako bisita gidatuan parte hartzeko moduan ez zegoelako.

Ze Manu beti “hor” egon baita, beti ekarpenak egiten, baita haizea, itxuraz behintzat, zeharo kontra zuenean ere. Gogoratzen dugu, adibidez, Donostiako Udalak enbarazo gutxien egingo zuen lekuan ipini nahi izan zuela, eta, helburu horrekin, Urgullen “bakartu” zuela. Bada, Manuk pare bat aste baino ez zuen behar izan Udalaren utzikeriaren ondorioz mendian zeuden gabeziei buruzko txosten mardula armatzeko. Izan ere, Manu non, han zegoen defendatu beharreko barrikada bat. Harentzat ez da egon barrikada txikirik edo trintxera antzurik.

Lehen Manuren azkenaurreko mezua aipatu dugu eta badakigu zuetako batzuk honez gero galdezka arituko zaretela ea zein izan ote zen azkena. Bada, azkena aste honetan bertan ateratako bideo bat izan da, olatuak Pasealeku Berriaren kontra oldartzen erakusten dituen. Ez galdetu oso ondo zergatik, baina esango genuke irudi horiek badutela zerikusia ezagutu dugun Manu nekazekin.

Egun handira arte, kamarada.

Eguzki, 2022ko azaroaren 25ean”.

Dolumin mezuak sare sozialetan

1936ko gerrako gudari Antonio Aranbururen semea; Herri Batasunako zinegotzi izandakoa 1983-87 legealdian; herrigintzan eta ekologismoan ibilbide luze eta oparoa osatu zuen Manu Aranburuk. Egunotan, dolumin mezu ugari topatu ditugu sare sozialetan.

Agurtzane Solaberrieta Mesa alkatea

“Atzo gauean jakin nuen Manu Aranburu hil zela. Herrikide konprometitua, militante ekologista nekazina, internazionalista eta azken urteotan pentsionisten mugimenduan eta jubilatutako elkar-

tean buru-belarri. Adiorik ez, kamarada!”.

Usurbil 1936 taldea

“Mila esker, Manu Aranburu, Usurbilgo memoriaren alde egindako guztiagatik. Hasiera-hasieratik emandako babesa oinarritzakoa izan da

herriko oroimena plazartzeko, beti hor egon baitzara, laguntzeko prest, bultzatzeko adi”.

Euskal Herria-Donbass Elkartasun Komitea

“Manu Aranburu euskal komunista historikoa hil da”.

Erraustegia prebentiboki ixtea eskatu dute GuraSOSen mobilizazioan



Manifestazioaren buruan, itsasoan ibiltzen diren surflari eta arraunlari kaltetuak zihoazen. Gogoan izan, egun Arkaitzerrekara isurtzen ari diren gai toxikoak Zurriolatik gertu Monpas inguruan urperatu nahi dituzte, ponpatze-sistema bat eraikita.

Hiru mila lagun bildu zituen GuraSOSe Donostiako Zurriolan iragan igandean. Herri harresi handi bat eraiki zuten Kursaal eta Sagues artean, etorkizunearn bertara hel daitekeen Zubietako erraustegiaren kutsadura eragozteko. Manifestazioaren buruan, itsasoan ibiltzen diren surflari eta arraunlari kaltetuak zihoazen. Gogoan izan, egun Arkaitzerre-

GURASOS

“Egoera honi denon artean aurkitu behar diogu irteera”

kara isurtzen ari diren gai toxikoak Zurriolatik gertu Monpas inguruan urperatu nahi dituzte, ponpatze-sistema bat eraikita.

Hortik amaieran antolakuntzak eginiko eskaera. “Dioxinarik ez. Ez Orian, ez Zu-

rriolan, ez inon”. Herritarren osasuna eta ingurumena bermatzeko erraustegia prebentiboki berehala geratzeko eskatu zuten eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari elkarrizketarako bidea zabaltzea. “Egoera honi denon artean aurkitu behar diogu irteera. Gu prest gaude gure ekarpena egiteko”. Datozen hauteskundeei begira diren alderdi politikoei gai honek haien agendan egon

behar duela gogorarazi zieten. Toxico Watch fundazioak kaleraturiko azken datuak ahotan hartuta berri eman zuten, azken bi urteotan dioxinen eta beste gai toxikoen kutsadura etengabe hazi da, “beste inon ez da hain denbora gutxian hainbeste kutsadura atzeman erraustegiaren inguruetan. Eta ez da txantxetako; minbizia sortzen duten osagaien isurketaz ari gara”.

Arkaitzerrekaren gutxieneko emaria bermatzeko udal eskaera

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) Ura Agentziari Arkaitzerrekaren ponpatze-sistema bat eraikitzeko eskatutako baimena jendaurrean egon da asteotan, eta tarte horretan bi erreklamazio aurkeztu dizkio Usurbilgo Udalak. Batetik, Ar-

kaitzerrekaren gutxieneko emari ekologikoa bermatzea “eta horretarako beharrezko neurriak hartzea” galdegiteko, eta bigarrenik, “ponpaketa sisteman ez ezik betelaneko ibar osoan kutsatuta egon daitezkeen cmgl-eko lurrak deskontaminatzeko

neurriak har ditzaten eskatu du, Usurbilen kokatzen diren lur eta Arkaitzerrekako uretan eraginik izan ez dezaten. Izan ere, cmgl ibarbidearen hondoko drain-hoditik isurtzen diren urak ponpatzea da proposatu duten irtenbidea. Jakinda dra-

in-hodiaren gaineko lurrak (betelana) kutsatuta egon daitezkeela, eta beraz ur kutsatuak drain-hoditik ez ezik, betelanaren beste gunetatik ere irten daitezkeela, Usurbilgo urak eta lurrak kutsa ditzakete”.

EUSKARAREN EGUNA!

Urbilen gure
hizkuntzaren erabilera
sustatzen dugu.
365 egun zuekin
batera euskaraz.



JATORRIA

Ekimen ziklo zabala, Ernai eta Ikamaren eskutik

Ekimenez jositako dator abenduak gazte mugimendua-
rentzat. Dinamika eta ekimen ziklo zabala iragarri du 2022a agurtzeko. Hasteko, Usurbilgo Ernaik “herriko gazteen osasun psikosozialaren egoera erreala zein den identifikatzeko” egitasmoa abiarazi du. “Belaunaldi krisi anizkoitzak gogor kolpatzen gaitu gazteak, gure osasun mentala kinka larrian jarritarritan. Baina behin eta berriz esango dugu, hau ez da kristalezkoak garelako!”.

Gai honi lotuta gazteek dituzten behar eta interesei buruzko hausnarketa fasearekin ekin diote proiektuari. “Gazteongan kezka handienak sortzen dituzten faktoreak identifikatzeko aldera, entzute prozesu batekin hasiko dugu dinamika, beraz oinarritik ahalik eta parte-hartzaileena izan dadin”. Sare sozialetan eseki duten galde-
tegia betetzeko gonbita luzatu dute. Ernairen sare sozialetan dagoen loturan sartuta osatu dezakezue. Arlo ezberdinetako galderak jasotzen ditu. “Herriko gazteok osasun mentalarekiko daukagun hurbiltasuna neurtzeaz gain, ditugun behar



Ernaiko gazteek Borroka Astea iragarri dute Buruntzaldean. Bestetik, Usurbilgo gazteen osasun psikosozialaren egoera erreala identifikatzeko galdetegi bat egiten ari dira eta QR kodearen bidez eskuratu daiteke.

BORROKA ASTEA

Buruntzaldeko Ernaik Borroka Astea iragarri du abenduaren 1etik 10era

eta interesak identifikatzeko ditugu, gazteontzat esangaratsuak diren gaiak biltzeko eta hauekin lanketa ezberdina bideratzeko”. Formazio

eta hausnarketa saioak iragarri ditu datorren urte hasierarako.

Borroka Astea eta topaketak

Borroka Astea iragarri du Buruntzaldean bestalde, Usurbilgo nahiz eskualdeko gainetako herrietako Ernaik, abenduaren 1etik 10era. Etxebizitza, prekaritatea, euskara, makroproiektuak... eta gai gehiago

hartuko dituzte ahotan, eskualdean egingo diren hainbat dinamiketan, “orokorrean bizi baldintza duinak lortzeko helburuarekin”. Usurbilgo Ernaik bereziki, Potxoenean antolatutako erraustegiari buruzko hitzaldira eta ekimen astea borobilduko duten Andoaingo hitzorduetara joateko deia egin du. GuraSOSei eskainiko duen saioari dagokionean, “borroka hau berpizteko” une ona dela deritzo Usurbilgo Ernaik, baina horretarako “herriaren beharra” dagoela nabarmentzen dute.

Lehen aldiz Ikama ikasleen mugimendurekin lankidetzan, topaketak iragarri ditu baita herriko gazte antolakundeak abenduaren 27rako. Besteak beste, hezkuntzaren alorreko problematika mahai-gaineratuko dute. Ikamak bere aldetik, abenduaren 15erako ikasleen greba deitu du. Mobilizazioak izango dira hiri-buruetan. Usurbildik Donostiara joateko deia egin dute. “Ikasleek beharrak azaleratu nahi ditugu. Hezkuntza sistema publikoa, euskalduna, feminista eta burujabea lortzeko joango gara”.

Gazte mugimenduaren deialdiak

Abenduan zehar

■ Usurbilgo gazteen osasun psikosozialaren egoera erreala identifikatzeko galdetegi bat betetzeko deia.

■ Deitzailea: Ernai.

Abenduak 1-10

Borroka astea Buruntzaldean:

■ Abenduak 1, 18:30 “Gazteok eta Euskara: benetan euskaraz bizi gaitezke?”, hitzaldia Lasarteko Xirimiri elkartearen. Hitzlariak: Adur Berasategi (Ernai), Oier Errementeria (Gazte Euskaltzale Sarea) eta Maialen Iñarra (Zubietako soziologoa).

■ Abenduak 2, 18:30 “Gazteon Lan Eskubideak: eta zuki ba al dakizu zein diren zureak?”, hitzaldia Andoaingo Gaztetxean, LAB sindikatua eta Ernairen eskutik.

■ Abenduak 3, Euskararen Eguna.

■ Abenduak 4, “Makroproiekturik ez!”.

■ Abenduak 5, 16:30 “Gazteok kale gorrian!”. Kanpaldi kolektiboa Hernaniko Plaza Berrin. “Ekarri kanpinak, koltxoiak, estufak, kazuelak...”.

■ Abenduak 6, “Espainiar Konstituzioari Ez!”.

■ Abenduak 7, 18:30 “Gazteok eta etxebizitza: etxebizitzarekin gazteok zer?”, hitzaldia Hernaniko Biterin. Hitzlariak: Iker Eizaguirre (Ernai), Hernani Buru Jabe eta Erantz Saez (EH-Bildu).

■ Abenduak 8, “Gazteok ilunpetan”.

■ Abenduak 9, 18:30 Potxoenean: “Erraustekarik ez! Erraustegiaren aurka herria berraktibatuz, ez dadila haria eten”, hitzaldia GuraSOSei eskutik.

■ Abenduak 10, 18:00 Mobilizazioa Andoaingo Goiko Pla-

zatik, “Gazteok dena aldatzera orain!” aldarripean. 22:00 Kontzertuak (Perlata eta Iheskide) eta ekitaldia Andoaingo Gaztetxean.

■ Antolatzailea: Ernai.

Abenduak 15, osteguna

■ Ikasleen greba eguna. Mobilizazioa Donostian.

■ Deitzailea: Ikama.

Abenduak 27, asteartea

■ Topaketak.

■ Amaieran, afaria.

Antolatzaileak: Ernai eta Ikama.

Gazte Asteburua oparoa izan zen



Etzekaleratze arriskuan den Maria Angeles herritarrari elkartasuna adierazi zioten. "Herriak bakarrik salba dezakeelako herria, batu gaitezen borrokara!".



Larunbat eguerdian paella lehiaketa egin zuten frontoian. Aldarrikapen giroak ordu txikiak arte iraun zuen. Irudi gehiago, noaueus web orrialdean.

Aztarrika Gazte Asanbladako kideek asteburu ederra osatu dute. Frontoian osatutako mural margoketarekin eman zioten hasiera asteburuari ostiral arratsaldean eta behin lanak amaituta, Kafe Tertuliak antolatutako azaroaren 25eko elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan. Gazte txupinazoarekin eta ondorengo ekitaldiarekin ospatu zuten Gazte Asteburua.

GAZTE ASTEBURUA Ostiralean, frontoian osatutako mural margoketarekin eman zioten hasiera asteburuari

ren hasiera, eta gauean, Gazte lokalean gazteek dituzten erronkak eta beharrak aztertu zituzten, bai eta Euskaraldiarekin bat egin ere argazki batekin.

Larunbatean, miseriaren okan jolasteko deia egin zuten eguerdi aldean, eta behin amaituta, kuadrilen arteko paella lehiaketari ekin zioten. Dozena erdi bat kuadrilak denetarikoko paellak prestatu zituzten: barazkiekin, itsaskiekin, haragiarekin... Bazkari aparta egin zuten prestatutako paellekin eta bertso-saio txiki batez ere gozatzeko aukera izan zuten.

Arratsalde eta gauean, musikak hartu zuen lekua DJ ibiltariarekin herriko taberna inguruak hartuta, eta Maria Angelesi elkartasuna adierazteko kontzentrazioa egin ondoren, afari bikaina egin zuten frontoian herriko gazte ugari. Gauean, kontzertuekin eta tabernetako giroarekin, goizaldera arte gozatzeko aukera izan zuten gazteek.

Zumarteko kideek Santa Zezilia Eguna ospatu zuten



Zumarte Musika Eskolako ikasleak kalejiran ibili ziren lehenik.



Kalejiraren ondoren hasi zen Sutegiko jaialdia.

Zumarte Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek Santa Zezilia eguna ospatu zuten azaroaren 24an. Kalejira egin

zuten talde instrumentalarekin eta dantzarekin herrian, eta ondoren, taldekako kontzertuak eskaini zituzten Sutegin.

Usurbil Döner Kebab
USURBIL

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

EROSKI city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagariak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Herri ordezkaritza zabala Durangoko Azokan

U surbildarrek aurkezturiko sortze lanekin batera, abenduaren 7tik 11ra egingo den 57. Durangoko Azokan hainbat herrikide partaide izango dituen ekitaldiak iragarri dituzte.

Abenduak 8, osteguna

■ 12:30-12:55 / 17:30-17:55 / 19:00-19:25 Szenatokian (San Agustin Kultur Gunea): 'Luze edo Motz'. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

■ 19:00-20:00 Mahaingurua Talaia-Landakogunean: "Euskal irudigileon papera XXI. mendean". Parte hartzaileak: Joseba Larratxe "Josevisky" mahai inguruko gidaria izango da, Eider Eibar eta Unai Gaztelumendi gonbidatuak.

Abenduak 10, larunbata

◆ 14:30-15:00 "Ni ez naiz Mikel Laboa" liburu aurkezpena



Durangoko Azoka abenduaren 7an hasiko da aurten eta abenduaren 11n amaituko da.

DURANGOKO AZOKA

"Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak gidatuko dute Azokako amaiera ekitaldia"

Talaia-Landakogunean. Egi-leak: Unai Iturriaga, Harkaitz Cano eta Joseba Larratxe.

■ 15:40-16:10 Peru Galbeteren "Beiratu" disko aurkezpena Ahotsenea-Musika-Platerue-nan (Ahotsenea Zuzenekoak).

■ 18:00-18:30 "Ilargiaren Egutegia 2023" (Argia) aurkezpena Jakoba Errekondorekin, Talaia-Landakogunean. Oharra: Jakoba Errekondo egunero egongo da sinatzeko prest,

abenduaren 7tik 11ra, 10:30-20:00 artean.

Abenduak 11, igandea

■ 11:00-11:30 "Ilargia eta landareak" liburu aurkezpena Jakoba Errekondorekin, Talaia-Landakogunean.

■ 13:00-14:00 "Kultura bai, baina ez" mahaingurua Talaia-Landakogunean. Hizlariak: Joseba Tapia musikaria, Yolanda Arrieta idazlea, Unai Iturriaga irudigile eta bertsolaria. Moderatzailea: Amagoia Gurrutxaga (kazetaria eta Lanartearen koordinatzailea).

■ 19:30-20:00 "Bukatu da!" ikuskizuna Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenarekin Talaia Landakogunean. Zehaztasunak: "Amaierako ekitaldi honetan Durangoko Azokan zehar jasotako gertakizun nabarmenenen laburpena egingo dute, umorez".



ABENDUAREN 18AN, 17:00 SUTEGIN

haur eta gaztetxoentzat filma

Sarrera: salgai 3€tan usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA!ko egoitzan

Abenduaren 20an eta 23an, irakurketa solasaldiak LHko ikasleentzat

Sutegi Udal Liburutegian haur eta gaztetxoei zuzendutako irakurketa-solasaldiak prestatu dituzte abenduaren 20 eta 23rako. Saioan parte hartzeko, lehendabizi, liburuak irakurtzea ezinbestekoa da. Beraz, jada liburuak eskuragarri daude liburutegian eta parte hartzeko izena eman beharko dute interesatuek, plazak mugatuak baitira.

Abenduaren 20an, asteartea, Yolanda Arrieta Malaxetxebarrria idazleak LH3 eta LH4ko ikasleei zuzendutako solasaldia gidatuko du. Juan Kruz Igerabidek idatzitako 'Euskal Herriko ipuin gaiztoak' liburuari buruzkoa izango da solasaldia eta behar-beharrezkoa izango da liburua aldeztu aurretik irakurtzea. Esan bezala, jada eskuragarri dago liburutegian eta solasaldian parte hartzeko izena ematea ere ezinbestekoa izango da.



Juan Kruz Igerabide eta Yolanda Arrietaren liburu bana aztertuko dituzte.

LIBURUAK ESKURAGARRI

"Liburuak dagoeneko eskuragarri daude udal liburutegian. Solasaldietan parte hartzeko izena eman behar da aldeztu aurretik"

Bigarren irakurketa-solasaldia abenduaren 23an, ostiralean, izango da eta LH5 eta LH6ko ikasleei zuzenduta egongo da. Hau ere Yolanda

Arrieta Malaxetxeberrriak gidatuko du, eta berak idatzitako liburu bati buruz izango da: 'Nitzaz ahaztu dira'. Liburua jada eskuragarri dago liburutegian eta parte hartzeko izena ematea ere ezinbestekoa izango da.

Eskulan tailerra

Abenduak 16, asteazkena

18:00 Eskulan tailerra Zorione Mendezek eskutik, 8-10 urteko haurrentzat.

KPOP dantza emanaldia

Zarauzko KPOP dantza taldearen eskutik, abenduaren 11n arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Sarrera 4 eurotan egunean bertan edo aurrez 637 256 851 telefono zenbakira deituta.

Euskal dantzak Orbeldirekin

Abenduaren 17an larunbata, arratsaldeko 18:00etan Sutegin. "Orbeldi Dantza taldeak euskal lurralde ezberdinetako dantza tradizionalak taularatuko ditu. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herri ezberdinetan XIX. eta XX. mendeetan sortutako pauso eta jantzi ezberdinak ikusi ahal izango dira bertan".



Abenduak 17, 18:00etan Sutegin.

Ekintza anitz, Aginagako elkargunean

Hainbat ekintza antolatu dituzte Aginagako Eliza Zaharrean.

Abenduak 3, larunbata

- 22:00 Euskaraldiko gala: Late Night saioa. "Aurkezleek gidatuta musikariak, bakarrizketak, bentrilokuak, magoak, zirkua eta askoz gehiago!".
- Sarrera: 10 euro (usurbil-

kultura.eus /Arrate).

Abenduak 11, igandea

- 18:00 "Lehendakari gaia" antzezlan.
- Sinopsia: "Lehendakari hautatu berriaren inbestidura-ekitaldirako hitzaldia prestatzen lagunduko dio psikiatrak lehendakariari. Ekitaldi nagusia ez izorratzeko dituen 'tik' barrega-

rriak kentzen lagunduko dio".

- Aktoreak: Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga.
- Sarrerak: 5 eurotan usurbil-kultura.eus plataforman eta Arrate tabernan.

Abenduak 15, osteguna

- 18:00 "Aginaga Biziberri-tzen" aurkezpen herritarra.
- Azalpena: "Aztikerren la-


guntzaz egindako herri inkestaren ondorioen eta 2023ko urratsen aurkezpena".

Abenduak 17, larunbata

- 18:00 Adinekoentzako guatekea! Mariatxiak eta aspaldiko abesti dantzagarriak.
 - Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

Uraitz, s.l.
Igeltzeritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil


ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

Jon Uli Mexikon da Erasmus programarekin: “Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da”

Mexikora eraman dute ikasketek Jon Uli txikierritarra. Urte erdi pasatzera joan da bertara eta bizitzen ari den esperientziak bizimodua ulertzeko beste ikuspegi bat eman dio. NOAUA!-ekin izan da esperientzia honen nondik norakoak partekatzen.

NOAUA! Noiztik zaude Mexikon eta zertara joan zara bertara?

Jon Uli: Abuztuaren 9an iritsi nintzen hona. Enpresen administrazio eta zuzendaritzako laugarren ikasturtea egiten ari naiz Donostiako EHU unibertsitatean eta Erasmus programa aprobetxatuz, ikasketen azken urte honetan atzerrian egon nahi nuela garbi neukan. Nire asmoa ikasturte osoa Latinoamerikan pasatzea zen, baina urte osoa geratzeko aukera Europan soilik eskaini zidatenez, lekuari eman nion lehentasuna, eta seihileko batez egongo naiz kanpoan. Izan ere, Euskal Herriatik eta bere inguruetatik erabat ezberdina den gune batean bizitzeko interesa neukan, eta horrez gain, bertako jendea bereziki atsegina eta irekia dela



“Erasmus programa aprobetxatuz, ikasketen azken urte honetan atzerrian egon nahi nuela garbi neukan”.

JON ULÍ

“Meridara, Yukataneko hiriburura etortzea erabaki nuen. Mexikoko hiririk beroenetako bat da”

entzunda nuen. Ezaugarri hori gogoko dudanez, Mexikora etortzea erabaki nuen.

Zein hiritan zaude?

Meridara, Yukataneko hiriburura etortzea erabaki nuen. Hiria hautatzeko orduan, segurtasunari eta kokalekuari eman nien garrantzia, bereziki. Mexiko ezagutu eta bidaiaitzeko ondo kokaturik dagoen hiri batera joan nahi nuen, eta ikusita Mexikotik ezagunenak egiten zitzaizkidan paisaiak hiri honek ondo biltzen zitue-

la, hona etorri nahi nuela argi neukan.

Gaur egun, esan dezaket bidaiaitu ahal izateko aukera asko eskaintzen dituen eta oso ondo komunikatuta dagoen hiria dela. Hala ere, Mexiko osoko hiririk beroenetako bat da eta hilaibetaren arabera beroa gehiegizkoa da. Horrez gain, ordu konkretu batzuetan eltxo pila bat dabilta.

“Mexikok leku ikusgarri pila bat ditu”

NOAUA! Hilabete batzuk badaramatzazu Mexikon eta horrek bidaiatzeko aukera emango zizun, ezta?

Jon Uli: Mexikok leku ikusgarri pila bat ditu eta iritsi ginen unetik asko ari gara bidaiatzen. Merida inguruan Holbox eta Isla Mujeres irlak, Campeche, Izamal, Rio Lagartos, Cancun etab. ikusi ditut. Aurrera begira, Tulum, Chichen Itza, Cozumel, Playa del Carmen eta Bacalar bezalako lekuak ikusteko bidaia jada planifikatuta daukat. Meridatik askoz haratago, Mexiko Hirian, erdigunea, Xo-

chimilco eta Theotihuacanera bidaiatu nuen eta laster Oaxaca, Chiapas eta ziurrenik Pueblara joango naiz. Herrialdetik kanpo oraindik ez naiz egon, baina abendurako Kubarra bidaiatzeko erreserbak eginak ditut, hasieratik nire ilusio handienetako bat baita eta ziurrenik Kolonbian ere izango naiz. Zorionez herrialde barruan bidaiatzeko prezioak oso merkeak dira.

Mexikok arriskutsu fama du.

Nik pertsonalki Meridan ez dut ezer bizi segurtasun falta sentiarazteko arrazoiak eman dizkida-

nik. Alde horretatik, Usurbilen egongo banintz bezala nago, Merida Mexiko osoko hiririk seguruenetako bat baita. Aldiz, Mexiko Hirira bidaiatu genuenean, behin eta berriz abisatu ziguten egunez adi ibiltzeko gehienbat lapurretengatik eta gaueko 10etatik aurrera kaleetan ez ibiltzeko, oso arriskutsua izan zitekeela. Egia da badirela gune batzuk non Mexiko Hiriko kale turistiko bat eta Tepito izeneko Latinoamerika osoko herririk arriskutsuenetako bat parez pare daudela, adibidez. Mexikoko hiri ezberdinetako

lagunak egin ditut, eta beraien hirietan batzuk gauez ez dira kalera irteten eta gutxienez gertukoren bat badute noizbait erasoren bat jasan duena. Arriskutsua da errepi-de zehatz batzuetatik autoz bidaiatzea eta iparralde da bereziki arriskutsua. Hain herrialde handia da non denetarik dagoen, horregatik turista moduan etorrita eta ezagunak diren lekuak bisitatzeko nire ustez ez dago arriskurik. Hiri ezagunenak ondo babesturik daude eta zentzuz jokatzuz gero ez da ezer gertatzen.

“Gelakideak eta Meridako hiritarrak irekiak eta atseginak dira”

NOAUA! Kultura mexikarra pixka bat ezagututa, zer nabar-menduko zenuke?

Jon Uli: Nahiz eta betidanik latinoamerikarrek oso irekiak izateko fama izan duten, oso harrituta utzi nau bertako lagun, gelakide eta hiritarrak irekiaz gain zein atseginak eta lagunkoiak diren ikusteak. Lehen aldiz gelara sartu nintzen unetik betidanik ezagutuko bannindute bezalako konfidantzarekin tratatu naute, ezagututako egun berdinean beraiekin egiteko hainbat plan eskainiz. Hori asko gustatu zait. Orokorrean, Mexiko asko maite dute eta aspektu guztietan Latinoamerika osoko herrialderik onena dela esaten dute. Aldiz, europarrak izugarri gorapatzen dituzte bertakoak izate hutsagatik. Oso bizitza erritmo lasaia daramate, ez dute ezertarako presarik izaten orokorrean, eta honekin lotuta, puntualtasuna ez da euren ezaugarriarik aipagarriena, beti berandu ibiltzen baitira. Elikadura aldetik ere, mexikarrek



Argazkian, Mexikoko Merida hiria.

JON ULÍ

“Elikadura arloan, mexikarrek bereizgarritasun ugari dituzte. Janari mina izugarri gustatzen zaie, espezie asko erabiltzen dituzte...”

bereizgarritasun ugari dituzte, orokorrean takoak edozein unetan jaten dituzte, janari mina izugarri gustatzen zaie, espezie asko erabiltzen dituz-

te janaria prestatzerakoan... Bitxikeria modura, gosaltzeko orduan oso ohikoa da hemen “cochinita pibilen” tako batzuk eta coca-cola botila bat gosaltzea.

Zerbait faltan botako duzu etxetik.

Bai, gertuko jendea asko ari naiz botatzen faltan, lagunarteko edota familiarreko bazkari-afariak, bereziki. Esan bezala, Merida oso leku beroa da eta Euskal Herriko hotza

ere batzutan faltan botatzen dut. Nahiz eta Mexikoko janaria gustatzen zaidan, errepikakorra egiten zait, otorduak kanpoan egiterakoan ez du zerikusirik Euskal Herriko kalitate eta aukerekin. Hiri barruko autobusek ordutegiak zehaztuta ez dituztenez, eta ausaz ibiltzen direnez, erosotasun hori ere botatzen dut faltan.

Behin esperientzia hau amaituta, etxean jarraitzeko asmoa duzu edo ikasketak eta lana kanpoan bilatzea pentsatu duzu?

Hona etorri aurretik nahiko garbi neukan esperientzia honek nire ikuspegia aldatzen ez bazuen itzultzerakoan ikasketekin amaitu ostean suhiltzaile izaten saiatu nahi nuela. Orain, egia esan bidaiatzeko gogo asko piztu zait eta nahiz eta aurrerago suhiltzaile izaten saiatzeko aukera ez dudan baztertzeko, une honetan buruan ditudan herrialderen batean lan egitea gustatuko litzaidake lehenago.

“Etxe handi batean bizi naiz beste 14 ikaslerekin batera”

NOAUA! Bakarrik joan zinen Mexikora ala Euskal Herritik jende gehiagorekin joan al zinen?

Jon Uli: Hona etorri aurretik ez nuen inor ezagutzen, baina whatsapp bidez Euskal Herriko batzuekin harremanetan jarri nintzen bizilekua hautatu eta Meridara bidaiari errazteko asmoz. Etxe handi batean bizi naiz, non guztira 14 pertsona bizi garen. Bertan alemanak, euskaldunak, espainiarrak eta mexikarrak bizi gara. Nahiz eta bere alde onak eta txarrak dituen, oso esperientzia abe-

rasgarria iruditzen zait etxean hainbeste jende eta hain leku ezberdinekoekin lekua partekatzea. Oso harreman ona egin dugu eta elkarren ohiturez asko ari gara ikasten; elikadura ohiturak, otordu ordutegiak eta bizimoduak, orokorrean. Kultura ezberdintasun handia dago eta hizkuntza berrietatik hitz batzuk ikasteaz gain, gaztelania eta ingelesa hobetzeko oso baliagarria izaten ari zait.

Mexikarrez gain, munduko beste hainbat lekutako jendea ezagutzeko aukera ere izango

zenuen. Nongo jendearekin egoten zara gehien?

Merida orokorrean oso gustuko lekua da ikastera, lanera edo oporretara etortzeko, eta horren eraginez, munduko hainbat lekutako jendearekin topatu naiz. Jendearekin nolatan iritsi diren bertara eta zer asmo duten hitz eginez asko ikasi dut bizimodu ezberdinez. Mexikarrek egotea oso gustoko dut, eta ikasgelan, kirol ezberdinak praktikatzen, eta aparteko hainbat plan batera eginda, denbora asko ari naiz partekatzen beraiekin. Batera bizi garenez, eta bidaiari

asko batera egiten ditugunez, orokorrean etxeko lagunekin pasatzen dut denbora gehien. Etxekoez gain euskaldun batzuk ere topatu ditut, gehien-goak ni bezala Erasmusi esker etorri direnak edo modu horretara etorri eta lanean geratu direnak. Betidanik Mexikon bizi izan diren arren aita edo bikotea izatez euskalduna izateagatik euskaraz hitz egiten dakitenak edota bizitza osoa Euskal Herrian egin eta jubilatuta ostean hona bizitzera etortzea erabaki duen norbait ere topatu dut.

Usurbil are gehiago aktibatzeke plan estrategikoa, gauzatzeko prest

Aktibatzen aurkeztu dute egunotan, Udala, herrikideak, eragileak bidelagun izan dituen urtebeteko parte hartze prozesutik 2022-26 urtera arteko “politika, programa eta jardueren oinarriak” biltzen dituen plangintza. “Jarduera Fisikoa eta Kirola modu zabal eta inklusibo batean garatu ahal izateko hausnarketa kolektiboa izan da”. Hasieratik helburu argi bat izan duena; “ez aktibo diren herritarrek aktibo bihurtzea”.

Urtebeteko prozesuan, “herriko eskaintza, kirol instalazioak, klubak kudeaketa eta dirulaguntzak edo Eskola Kirola” gaiok ahotan hartu dituzte. Hortik lau helburu estrategiko eta 17 programa marraztu dituzte. Modu honetan, “Garen Kirola” izeneko helburuaren bueltan, Eskola Kirola propioa sustatzea, euskararen aktibazioa, berdintasuna eta inklusibotasuna eta tarifa sozialak izango dituzte aurrera begirako lan-ildoan artean.



Bizi osorako ohitura osasuntsuak bultzatu nahi dituzte.

BERRIKUNTZAK

“Oiardoko harrera gunea irisgarri egin, Usurbilgo frontoia margotu edota Haraneko belar artifizia berritu”

Kirol jasangarria sustatu nahi dute baita, eta horretarako mantentze lan eta inbertsioak iragarri dituzte, kirol jarduerak aire librean egitea erraztea. Gobernantza parte-

katua bultzatu nahi dute baita, eta horretarako partaidetza eta lankidetzak espazioak sortzea, klubak indartzea edota kirol espazio digitalak areagotzea.

Bizi osorako ohitura osasuntsuak bultzatu nahi dituzte baita. “Ikuspegi zabal eta inklusibo bat garatuko duen kirol politika bat diseinatzea izango da erronka: izan jaioberrri edo adineko, edozein dela ere norberaren generoa edo sexu orientazioa, non arraka-

la sozioekonomikoa ez den oztopo izango eta euskarazko eskaintza anitza izango duena ardatz”.

Hitzaldia eta hobekuntzak azpiegiturretan

Epe motzean bideratu nahi dituzten erronka zehatzak eza-gutza eman dituzte. LH 5 eta 6 mailetako Eskola Kirolaren ereduaren inguruko hausnarketa bideratu nahi dute eragileekin. Klubetako kirolariek ordaindu beharreko kuotei lotutako azterketa bat ere egin asmo dute. Abenduaren 14an zoru pelbikoaren zaintzari buruzko saioa antolatu dute emakumeentzat, 17:00etan Oiardo Kiroldegiko areto berrian.

Kirol instalakuntzetan ere hainbat hobekuntza iragarri ditu udal gobernu taldeak. Batetik, Oiardo harrera gunea herritar guztientzat irisgarri izateko gunea egokitzea; Usurbilgo frontoia margotzea; edota Haraneko belar artifizia berritzea.

Aktibatzen prozesuko inkesten emaitzak (2021-22 denboraldiko datuak)

Eskola Kirola eta Kirola DBH-n Parte hartzearen bilakaera:

- 2019-20: %46,7 neskak, %53,3 mutilak.
- 2020-21: %45,9 neskak, %54,1 mutilak.
- 2021-22: %47,5 neskak, %52,5 mutilak.

Egindako jarduera kopurua:

- Jarduerarik ez: Nesken %11,4, mutilen %11,2.
- Jarduera bakarra: Nesken %48,8, mutilen %42,3.
- Bi jarduera: Nesken %22,6, mutilen %37,3.
- Hiru jarduera:

Nesken %11,4, mutilen %9,2.

DBH-ko gazteek

proposatutako jarduerak:

Boleibola (%16,67), saskibaloia (%14,81), padela (%14,20), tenisa (%14,20), badminton (%4,32), eskalada (%3,70)...

Jarduera fisikoa egiteko ohitura

- Gehienek intentsitate erdiko jarduera fisikoa egiten dute. Emakumezkoek baita jarduera fisiko arina, eta gizonezkoek errendimendu edo lehiatzeko jarduera fisikoa.
- Non? %47ak aire zabalean,

%27ak udal instalakuntzetan, %15ak etxean, %6ak kirol-klubean, %3ak bestelakoetan eta %2ak gimnasio pribatuetan.

■ Jarduera fisikorik egiten ez dutenen kasuan, arrazoiak: denbora falta, kontziliazio arazoak edota motibazio falta nagusiki.

■ Egiten diren kirol edo jarduera fisikoak: 259 lagun oinez ibiltzen dira, 164k mendi-ibilaldiak egiten dituzte, 101 korrika aritzen dira, 99 gimnasioan, 89 txirrindularitzan, 76 igeriketan, 28 futbolearen, 14 pilotan, 9 eskubaloian, 2 aretoko jardueretan, bakarra saskibaloian eta 6

lagunek ez dute jarduerarik egiten.

Kirol instalakuntzak Proposamenak:

- 12-16 urtekoen artean: padel pistak, boleibol pista, tenis pista, Harane berritzea, skate parkea berritzea.
- 16 urtetik gorakoaren artean: padel pistak, Oiardo kiroldegiko gimnasioko hobekuntzak, igerilekua handitu eta hobetzea, aire libreko instalakuntzak.

Emaitzak xeheago eta planari buruzko informazioa, hemen: usurbil.eus/eu/aktibatzen

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m²

garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman. go dizkion pertsona baten bila gabil-tza. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16

telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondan. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburueta-rako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat

naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelaseko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurak zain-tzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltsiritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta

ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalari-tzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galduta duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Heriotzak

Manuel Aranburu Agirre

Azaroaren 24an hil zen, 69 urterekin

**Heriotzak**

Miguel Angel Mangas Torres,
Azaroaren 26an hil zen, 49 urterekin



Zorionak Inge!

Urte askoan, 9 muxu erraldoi!

Pilota partidak

Abenduak 2, ostirala
Usurbilgo frontoian, 18:00:

Alebinak, 1. Maila banaka (errendimendua):
- Alejo M. (Pagazpe)
- Azpeitia (Hernani)

- Alejo E. (Pagazpe)
- Agirre (Txapagain)

Kadeteak 2. Maila, buruz buru
-Alejo A. (Pagazpe)
-Alberdi (Hernani)

-Errasti (Pagazpe)
-Oiarbide (Eple)

Pagazpe, gomazko paletako txapelkunorde

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zen iragan igandean Astigarragan.

Gomazko paleta nagusien 2. Mailako azken neurketan, Xabier Errazti eta Koldo Uribarri nagusitu ziren. Aginagako Mundarro taldeko Alain Agirre eta Beñat Zubirrairekin lehiatu ziren. 25-24 azken emaitza. Puntu bakarrarengatik txapelkunorde amaitu du Pagazpek.

Eskubaloio partidak

Abenduak 3, larunbata,
Oiardo kiroldegian:

Kadete neskek, 17:00:
- Usurbil KE
- Neurri Elgoibar KE

Jubenil neskek, 19:00:
- Urbil-Usurbil KE
- Oñabike Aloña Mendi KE

Senior mutilak, Oñatin *:
- Aloñamendi KE
- Usurbil KE
* Ordua eta eguna, zehazteke.

Goardiako farmaziak

Osteguna 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 03 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 04 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astlehena 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda abendua

01 osteguna

- **Andatzako indusketei buruzko aurkezpena** 18:00etan Sutegin.
- **2023ko udal aurrekontu proposamenen aurkezpenak.** 18:30ean Kalezarren, Haur Eskolan.
- **Mikel Laboa gogoan** Egun osoan, plazan.

03 larunbata

- **Euskaraldiko Gala.** 22:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak 10 eurotan, usurbil-kultura.eus plataforman eta Arrate tabernan salgai.

04 igandea

- **Hurbilagoren Azoka.** 11:00-14:00 Dema plazan. 11:00-14:00 Umeentzat tailerrak. 12:00 Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa. Zizkamizka eta Berexi Artekin sorkuntza tailer irekiak. Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.

Hurbilagok antolatutako azoka, igande honetan Dema plazan

Hurbilago elkarteko hainbat saltoki kalera aterako dira igande honetan. Erakusleioa denda-tik plazara lekuz aldatuko dute. Bisitan gerturatzeko denak salgai aurkituko ditu hainbat produktu.

Herriko saltokietako ordezkariekin batera, hango eta hemengo sortzaile elkartuko dira Hurbilagoren Azokan.

Hurbilagoren Azoka

Abenduak 4, igandea

Dema plazan

- **Partehartzaileak:** Lizardi, Marije, Otar Goxo, Ione Iruretagoiena, Kool Studio, Ama eta biok, Kaori Hamarratz, Urluma, Gigil, Mikka Pika, Tilin Talan, SendaGaia,



Iazko Udazken Azokaren ildotik dator aurtengo ekimena.

Amlu, Hyle Zizka Mizka, Jose Ramon, Errasti Ogia, Suma Flowers, Puochinah, Koloreztatu Berexi Art, La Marieta Tea, Amesgile, Krysia.

- 11:00-14:00 Umeentzat tailerrak.
- Zizkamizka eta Berexi Artekin sorkuntza tailer irekiak.
- 12:00 Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa.

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa

Maria Jesus Etxeberria herrikideak bere hainbat argazki eta margolan ikusgai jarri ditu Sutegin. Aurreko astean zabaldu zuen erakusketa eta igande honetan amaituko da. Hauexek dituzue bisita orduan:

- Astelehenetik larunbatera: 16:30-19:00.
- Igandean, abenduak 4: 11:30-12:30.



Sutegiko erakusketa abenduaren 4an amaituko da.

Datozenak



“Gure bazterrak ezagutzen”, ibilaldia Santuenea inguruan

Santuenea elkarateak ibilaldia antolatu du Santuenea eta inguruko bazterrak ezagutzeko. San Estebanetik gorako norantzan egingo dute ibilaldia.

Abenduak 8 osteguna

- Abiapuntua: Goizeko 9:30ean, Santueneko frontoian.
- Hamaiketakoak: 12:30ak aldera.
- Izen-ematea: www.usurbilkultura.eus (abenduaren 5a arte).
- Oharra: Ibilaldi hau azaroaren 27rako deitu zuten baina azken orduan atzeratzea erabaki zuten. Ibilaldia hortaz, abenduaren 8an egingo da.
- Antolatzailea: Santuenea Elkartea.

“Errausketarik Ez!”, Ernai-ren ekitaldia

- Abenduak 9 ostirala, 18:30.
- Potxoenean.
- Antolatzailea: Buruntzaldeako Ernai.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

• EGUNEKO MENUA
• KARTA
• RAZIOAK
• HANBURGESAK
• BOKATAK

GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

ABENDUAK 4

Usurbilgo Dema Plazan

Azokan erosketa
egiten duenarentzat
gaztain erreak
eta sagardoa doan



10:00-14:00 AZOKA

Lizardi • Marije • Otar-Goxo • Ione Iruretagoiena • Kool Studio • Ama eta biok • Kaori
Hamarratz • Urluma • Gigil • Mikka Pika • Tilin Talan • SendaGaia • Amlu • Hyle
Zizka Mizka • Jose Ramon • Errasti Ogia • Suma Flowers • Puochinah • Koloreztatu
Berexi Art • Aichetou Mohamed Babou • Amesgile • Krysia Howard y Estudio Margarita
Garoa Gaztak • Pott Keramika • La Marieta Tea

11:00-14:00 HAURRENTZAT TAILERRAK

Zizkamizka eta Berexi Artekin sorkuntza tailer irekiak

12:00 IPUIN KONTAKETA

Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa

650
USURBIL
bizi

gabonetako Otarra

Erosi herrian
eta parte hartu
zozketan!

Erosi bertakoa
eta irabazi
otarra!



100 otar
zozketatuko
ditugu!

100 otar saridunak abenduaren 31ean
banatuko dira Mikel Laboa plazan.

hurbilag
GURELARI HERRIAREN
GURELARI HERRIAREN